



Elgoibarko ahozko euskara (IKER – 25) liburua aurkezten

Euskal Herriko Unibertsitateko Errektore jauna,
Euskaltzainburu jauna,
Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoreordeak,
Euskaltzainak,
Adiskideak,
Jaun-andreak, egun on!

Nire orain arteko ibilbide akademikoan nire etxe izan ditudan bi erakundeak elkartzen dira ekitaldi honetan, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskaltzaindia, eta bereziki pozik nago gaurko ekitaldiko uztartze honengatik.

Amaitu berri dudan ikerketa baten emaitza nagusia aurkeztera nator gaur zuen aurrera, *Elgoibarko Ahozko Euskara*. Eta adierazi nahi dizuet niretzat bi erakundeekiko nire zorra ordaintzeko modu bat dela lan hau amaitzea eta argitaratzea. Euskal Herriko Unibertsitatean (Euskal Filologia sailean) egin eta 2009ko azaroaren 20an defendatu nuen doktoretza-tesiaren emaitza da, eta Euskaltzaindiaren IKER bilduman argitaratu nahi izan dut, Akademian izan naizen urte hauetan jaso eta ikasi dudan guztia eskertzeko modu gisa.

Gaiari buruzko interes pertsonalari eta Euskal Herriko eta nire inguruko herrietan egiten ari ziren lan monografikoei jarraipena eman beharrari, beste kontu bat gehitu zitzaion nik lan honi ekiteko unean; honako hitz hauek idatzi zituen Koldo Mitxelenak 1981 urtean, “Lengua común y dialectos vascos” artikuluan:

“Pero esa frontera, que coincide en trechos con el frente de guerra tal como quedó estabilizado en octubre de 1936, jamás ha sido explorada, que yo sepa, en detalle, punto por punto. (...) Así, en relación con la ‘distancia’ entre Brinkola y Oñate, ¿cuál es la que separa a Eibar de Elgoibar o a Ondarroa de Motrico? Antes de levantar teorías, sería necesario dedicar algún tiempo al humilde, trabajoso pero indispensable menester de observar los hechos. Habría también que ver, (...), si no hay manera de cuantificar las observaciones.”

Hitz horiek burutik kendu ezinda erabili ditut haiek irakurri nituenez geroztik, harik eta lana burutua izan dudan arte; hortik etorri zen tesiaren hazia, denborarekin erne dena, eta Mitxelenak aipatutako lan “apal, neketsu baina beharrezko”aren bidez zuhaitz bilakatu dena.

Nire herriko eta inguruetako adineko jendea elkarrizketatzen hasi, eta informazio horrek guztiak emaitza hau ekarri du, Elgoibarko ahozko euskararen deskribapen xehe arloz arlokakoa, eta inguruko herrietako euskarekiko konparazioa.

Balio bezate nire herritarra zen Gotzon Garateren eta beste batzuen atsotitz eta esapide batzuk nire liburuaren edukietan zehar ibilbide bat egiteko.

[1. FONOLOGIA]

Sein san Sanson? Sanson Sanson san.

Gaur da San Juan; bixar, juan san.

Halako hitz-joko eta esapideak esaten dira Elgoibar inguruetan, eta hango euskararen ahoskera jaso nahi dute. Fonologiaren inguruko era horretako jakingarriak dituzue lehen kapituluan: arau fonologikoak, bilakabide fonetikoak, fonemen errepertorioa... Azken finean, Elgoibarko euskararen sistema fonologikoa.

[2. IZENAREN JOKOA]

Jesus? Izena bakarrik daukak ona.

Izenaren jabe haiz, Jesus.

Nire izena halaxe da, eta ez dakit bi esaeretako zein dagokidan; nolana ere, izenari dagokionez jakingarriak iruditu zaizkidan kontu guztiak biltzen ahalegindu naiz; postposizioen eta kasu-marken taulak osatu ditut, hitz elkartu ohikoenen zerrenda egin, erabiltzen diren eratorpen-atzizkiak bildu, eta abar.

[3. ADITZAREN JOKOA]

Baleuka eta balitz, alkarren onduan dabiz.

Banego, banitz, baneu... horrek anai asko dira.

Aditz horiek eta gehiago jaso ditut aditzari dagokion kapituluan. Tauletan eman ditut herriaren gunean galtzear dauden alokutiboko adizkiak eta bestelakoak, perifrastikoak eta sintetikoak; azken finean, aditzaren erabilerari buruz pertinenteak iruditu zaizkidan jakingarri guztiak.

[4. SINTAXIA]

Uste ez arren, katua xaguak itto Eibarren.

Esaera honetako kontzesiozko perpausa bezalakoekin, Elgoibarko euskararen perpaus konplexuen gramatika txiki bat osatu dut; dialektologiarako alor emankorregia ez izan arren, gramatigintzari dagokionez interes handikoa iruditu zait perpaus konplexuen bilduma xehea egitea, eta, adibide ugariz horniturik, ahalegin berezia egin dut hori lortzeko.

[5. ESAERAK ETA AHOZKOTASUNA]

Buztarrixan juateko modukuak dira bi lagun horrek (adibidez, gaur, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskaltzaindia).

Erosittako prezian saldu dot berri hori (nik, adibidez, Elgoibarko euskara):

Era horretako 700 esaera eta esapide inguru jaso ditut kapitulu batean. Horretaz gain, Elgoibarko euskararenak bakarrik ez diren ezaugarri batzuk aztertu eta bildu ditut, ahozko euskarazko jardunean adineko euskaldunek erabiltzen dituzten baliabideak: aditzaren elipsia, elkarrizketetako interjekzioak, errepikapenak, onomatopeiak, eufemismoak, ezetzapenaren erabilera berezia, hitz-ordena bereziak, eta abar eta abar. Gure egungo gazteen jarduna hobetzeko ezinbestekoak iruditzen zaizkidan baliabideak bildu eta aztertu nahi izan ditut kapitulu horretan, gure adinekoen jarduna bizia, naturala eta komunikatiboa egiten dutenak. Era honetako lan monografikoetan, sarritan faltan aurkitzen dudana informazioa, alegia.

[6. HIZTEGIA]

A ze paria, karakola eta baria!

Elgoibarren, astuak goen eta barren.

Hala diote gure inguruko esaera bik. *Barren*, jakingo duzuen bezala, Elgoibarko eta inguru hurbileko berba berezi bat da, lokailu bat. Hori bezala, Elgoibarkoak eta inguru hurbilekoak diren hainbat hitz bereizgarri jasotzen ahalegindu naiz hiztegiari dagokion kapituluan, 2.500 sarrera inguruko hiztegia osatzeraino. Lexikoa jasotzearena amaierarik gabeko lana izan arren, ahalegin berezia egin nahi izan dut hitz berezi horiek eta bereizketa dialektologikorako pertinentiak diren hitzak jasotzen; bai eta gaur eguneko gazteentzat zaharkituxeak edo are ahaztuak daudenak ere.

[7. TESTUAK]

Ezkondutako urtia eta txarrixa hildako astia, onenak.

Errementarixan etxian, zotza burrunzti.

Garizumia baiño luziagua da gizon hori.

Berri-emileen mundu-ikuskerara islatu nahi dute liburura ekarri ditudan testuek: haien bizitzeko, pentsatzeko eta sentitzeko modua jaso nahi izan dut testuotan, haien euskaraz gainera, jakina. Testu horien interesa ez da, beraz, hizkuntzari buruzkoa bakarrik.

[8. DIALEKTOLOGIA]

Plaentxin zapuak zikin; Maltzaan katuak dantzan; Elgoibarren astuak goen eta barren; txakur zarrak Eibarren, itxurak egin arren; Bergaran xaguak ganbaran; Deban oilluak txixa egin zeban; Mendaron azarixak giro on.

Hor aipatzen diren herrietako euskara ere izan dut hizpide; Elgoibarko euskara xeheki aztertu eta gero, inguruko herrietako hizkerekiko konparazioa ere egin dut. Jakina da Elgoibarko euskararen kokapena berezia dela dialektologiaren aldetik: bi euskalkiren arteko muga-mugan egonik, interes handia piztu izan du antzinetatik

dialektologoen artean Elgoibarko euskararen kokapenak: horregatik egin dut konparazio hori, eta horregatik markatu ditut Elgoibartik hurbil pasatzen diren hainbat isoglosa. Debarrenen testuinguru horretan, arloz arlo egin dut konparazioa, eta kasu bakoitzean, hizkuntza-ezaugarri bakoitzean, Elgoibarrek hizkuntzaren aldetik nora egiten duen esan dut, Mendebaldera edo Ekialdera, alegia Erdialdeko hizkeretara.

Ondo eta azkar, usuak hegan.

Esatera hori ere ahotan darabilte elgoibartarrek. Nik ere, hala erantzuten nien tesia lehenbailehen amaitu behar nuela esaten zidatenei. Urteak pasatu dira lanari ekin nionetik. Tartean, etenaldiak izan dira, bestelako lan batzuk ere egokitu baitzaizkit.

Ikerlan hau egitean, behar nuen denbora hartu nahi nuen; alegia, banekien ezin nuela azkar eta ondo burutu ikerlana, usoek hegan egiten duten bezala.

Azkar ez dut egin, baina espero dut ondo behintzat egina dela esango didazuela ondorengo hilabeteotan... edo, presarik hartzen ez baldin baduzue, ondorengo urteotan.

ESKER ONA

Amaitzeko, eta liburu bat idaztea pertsona bakar baten lanaren emaitza izaten ez denez, nire esker ona adierazi nahi dut.

Lana argitaratzeko eman didaten aukeragatik, laguntzagatik eta erraztasunengatik, **Euskal Herriko Unibertsitateari** eta **Euskaltzaindiari** (argitaratze-garaian Euskara eta Eleaniztasuneko errektoreorde zen **Jon Irazustari** eta **Andres Urrutia** euskaltzainburuari); esker oneko sentitzen naizela adierazi nahi diet, era berean, Euskal Herriko Unibertsitateko Bizkaiko campuseko euskara-zuzendari **Iñigo Urrutiari** eta Euskaltzaindiko argitalpenen arduradun **Ricardo Badiolari**, argitalpen honi dagokionez bete behar zuten lana ardura eta profesionaltasun osoz bete dutelako.

Tesi-zuzendari **Pello Salabururi** ere eskerrak, tesia egitean nirekin izan zuen pazientziagatik eta eman dizkidan aholku zuhurrengatik.

Ikerlana lehenago zena baino hobea egiten lagundu didaten adiskideak ere oso gogoan ditut: **Gidor Bilbao**, **Koldo Zuazo**, **Gotzon Aurrekoetxea** eta **Txipi Ormaetxea**; ezin ordainduzko oharrak egin dizkirate, eta asko ikasi dut haiekiko lankidetzaren horretan.

Proiektu honen abiapuntuan emandako bultzadagatik, mila esker Elgoibarko Izarrari (eta garai hartan presidente zuen **Iñasio Garmendiari**); bai eta Elgoibarko Udalarari ere.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuaren zuzendari izandako **Xabier Alberdiri** eta **Gidor Bilbaori** (berriz) ere biziki estimatzen dizuet tesia erredaktatzen ari nintzenean eman zenizkidaten erraztasun guztiengatik.

Eta haien hizkuntza-informazioa gabe ezinezkoa litzatekeelako nire liburu hau, oso gogoan ditut **berri-emaileak**, Elgoibarkoak eta inguruko herrietakoak (**Juan Mari Elustondo, Jabier Arriola, Serafin Basauri...**), batzuk mundu honetatik joanak, zoritxarrez. Jarrera ezin hobea erakutsi dute, eta bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet haiei ere.

Mundu honetatik joana zara zu ere, Ascen, baina esan nahi dizut zure laguntza gabe seguru dakidala ez nintzela egongo orain mahai honetan liburu hau aurkezten. Zuri eskainia da liburu hau, merezimendu osoz.

Era honetako liburuen laguntzarekin, hurbilduko ahal dugu gure gazteen ahozko jarduna adineko berri-emaileen ahozko jardun dotorerara, poetikora, naturalera, bizira, xelebrera!

Hori izango litzateke, nik uste, gaurko berba hauek baino gehiago, haiei eskerrak emateko eta haiekiko zorra ordaintzeko modu egokiagoa.

Ea, ba, hala den!

Eskerrik asko zuen arretagatik.

Bilbon, 2011ko apirilaren 4an

Jesus Mari Makazaga Eizagirre